



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 14a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketa aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan enplegu publikoari dagokionez. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko batzorde antolatzailean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak hautatutako 5 batzordekide, parlamentu-talde bakoitzetik bat. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, gehiegizko untxi kopuruak eragindako egoera aztertzeko lan-mahaiari buruzkoa. María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (11. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak egoitza-postuen eskaeren itxaron zerrendei aurre egiteko dituen asmoei buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak Mentaliza zaitetz kanpaina abian jartzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egina (12. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Silencio roto filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinaren egoerari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (18. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 7an onetsitako erabakiak (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2008ko urriaren 31n hartutako erabakiaren testuan (2008ko azaroaren 4ko 97. NPAO). Erabaki haren bidez xedatu zen Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua izapidetzea. Ondoren dator zuzenketa:

Azken lerrokadako azken lerrokada kentzea. Alegia, honakoa dioena: "Irizpena onetsi eta hurrengo eguneko eguerdiko 12:00etan bukatuko da zuzenketak mantentzeko epea."

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko otsaila-**

ren 6ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait neurri har ditzan enplegu publikoari dagokionez.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita zenbait neurri har ditzan enplegu publikoari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, Nafarroako administrazio publikoko behin-behinekotasun tasa, guztira, %33,51koa da. Ziurrenik foru administrazioaren historiako altuena izanen da. Eta hori hala da nahiz eta neurri batean murriztu egin den, kontratazio kopurua murriztu baita, baina ez behin-behineko enplegua enplegu finko bihurtu delako, kasuan kasuko enplegu publikoaren eskaintzen bidez.

Departamentuen arabera, esanguratsua da Gizarte Gaietako Departamentua –%51,57–, Osa-

sunekoa –%42,22– eta Hezkuntzako –%29,08– izatea, gizarte ongizatearen oinarritzko hiru ardatzak, hain zuzen, emaitza okerrenak dituztenak eta okerrera egiteko joera agertzen dutenak. Prekarietatea gero eta handiagoa izateak eragina du oinarritzko zerbitzu publikoetan.

Hori guztia gertatzen da “Nafarroako lehen enpresan”, zeina kudeatzen duen UPN-CDNren gobernu batek, eragile ekonomiko eta sozialei aditzera ematen diena adostasuna beharrezkoa dela enplegu egonkorra eta kalitatezkoa defendatzeko. “Nafarroako lehen enpresa”, prekaritateari dagokionez gure erkidegoko gainerako enpresen eta produkzio-sektoreen gainera dagoena. Nafarroako Gobernuak, jasaten ari garen krisi ekonomikoa konpontze aldera, erabaki zuen departamentu bakoitzeko eta erakunde autonomo bakoitzeko betetako lanpostu kopurua ez handitzea. Horrek esan nahi du aurrezteko xedea duen neurri bat ezarriko dela, herritarrek jaso behar duten zerbitzuaren kontura.

Eta langileak ordezkatzeko kontratazioak ahalik eta gehien murrizteak, hiru hilabete baino gutxiagoko bajak ordezkatu gabe, kasu batzuetan izan ezik, esan nahi du zerbitzurik ez dela emanen. Langileen arloan egiten ari den kudeaketa okerrak Nafarroako administrazioko zerbitzuen erabiltzaileengan du eragina.

Nafarroa, honela, erkidego autonomoen zerrendaren atzealdean kokatu da alderatzen baditugu enplegu publikoari buruzko ratioak biztanleria osoarekin, biztanleria aktibo edota landu-narekin. Foru gobernuaren politika izan da enplegu publiko egonkor gutxi sortzea hazkunde ekonomikoa handia zen garaian eta hura murriztea krisi garaian; hau da, enplegua sortzeko neurriak hartu beharrean, enplegua suntsitu egiten du.

Zerbitzu publiko bera eman nahi zaio jende gehiagori proportzionalki murrizagoak diren giza baliabideekin, eta horrek dakar kalitatea nabarmen txikitzea. Normala denez, halako politikak aplikatuta ez da handitzen herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen zorroa, behintzat administrazio publikoek zuzenean kudeatzen dituztenena. Aldiz, gure helburuak izan beharko luke prestazioen arloan maila hobea duten Europako eskualdeetara hurbiltzea, horietatik urrun baikaude oraindik.

Zerbitzuak pribatizatzeko politika areagotu egin da eta ehundaka pertsonen lan baldintzek okerre egin dute; izan ere, administrazioek hartu ordez, enpresek (publikoek edo pribatuak) kontratatzen dituzte, eta enpresa horiek, kostuak murrizten dituztenean –eta hori ez da beti gertatzen–, langileen bizkarretik egiten dute.

UPN-PP Gobernua aplikatzen ari den errezepten aurrean, oinarritzotzat jotzen da kohesio sozial handiagoa eta bizi kalitate hobea defendatzea. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezan Enplegu Publiko Egokiaren Foru Plan bat, administrazio behin-behinekotasuna murrizteko helburuak eta ezarri beharreko neurriak jasoko dituena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrei eskaintako zerbitzu publikoen kopurua handitu dezan eta beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoak berma ditzan. Horretarako, enplegu finkoak aldi baterako enplegua ordezkatu beharko du, eta nahikotasun ekonomikoa bermatu beharko da zerga-sistema progresibo baten bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kudeaketa publikoa defenda dezan pribatizazioen aurrean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan zerbitzu publikoen kalitatea, eta bultzatzen herritarren parte-hartzea administrazio publikoen diseinuan eta kontrolan.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inplika ditzan langile publikoak zerbitzuen hobekuntzan eta haien parte-hartzea bultzatzen.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma ditzan sektore publikoko langileen lan eskubideak negoziazio kolektiboaren bitartez.

Iruñean, 2008ko urriaren 31n

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Mendekotasunari buruzko Legeak eta laguntza gehien behar duten pertsonen eskubide sozialak sendotzeko eta indartzeko egiten diren arau guztiek ahalbidetzen dute, beharrezkoa bada, baliabide sorta bat modu etengabea eta sakonean garatzea, mendekotasun egoerak arintzeko eta autonomia sustatzeko.

Horrekin lotuta, komenigarria eta eraginkorra da dauden administrazioek parte hartzea Menpekotasunari eta Autonomia Pertsonala Sustatzeari buruzko Legearen Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen kudeaketan, plangintzan eta abiaraztean.

Bereziki, beharrezkoa da toki entitateen parte hartzea; izan ere, toki esparrua izaten da herritarren eskariak kudeatzen lehena. Udalak eta oinarritzko gizarte zerbitzuak dira hobekien ezagutzen dituztenak zerbitzu horiek eskatzen dituzten pertsonak, eta zerbitzu horiek izaten dira herritarren presioa pairatzen dutenak, sorturiko itzaropen sozialetako batzuk ez badira betetzen.

Menpekotasunari buruzko Legeak onartu eta aholkatzen du toki entitateek parte har dezaten gizarte politiken definizioan; zehazki, 12.1 artikuluan ondokoa nabarmentzen da: "toki entitateek parte hartuko dute mendekotasun egoeran dau-

den pertsoneri laguntzeko zerbitzuen kudeaketan, autonomia erkidego bakoitzeko araudiaren arabera eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkien eskumenen barruan."

Gizarte zerbitzuen zabaltzea ez da egin behar soilik toki entitateen parte-hartzearekin; horretaz gain, era deszentralizatuan egin behar da, herritarrengana era egokian irits daitezen.

Hori dela eta, garrantzitsua da parte-hartze eta aholkularitza mekanismoak ezartzea, toki entitateek izan ditzaten gizarte politika hurbila eta eraginkorra zehazteko beharrezkoak diren tresnak. Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak berak, 22., 23. eta 24. artikuluetan, zehazten du udal araudia garatzearen garrantzia, bai tokiko zerbitzuen zorroaren bidez, bai toki esparruko plangintzaren bidez.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzat, Menpekotasun Legean eta Gizarte Zerbitzuen Foru Legean xedatuta garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gara dezan Menpekotasunari eta Autonomia Pertsonala Sustatzeari buruzko Legearen 12.2 artikuluan xedatutakoa.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean presaz eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Beren herrietan ez dagoen hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei garraiorako eta jantokirako dirulaguntzak emateko deialdia egin ez izanak kezka eragin du familietan; izan ere, deialdia –abuztuaren amaieran argitaratzen zen eta eskabideak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era izaten zen– ez da egin, eta ez da horri buruzko ezer jakitera eman.

Horretaz gain, kontusail horretan 171.027 euro zeuden eta 142.392 eurora murriztu da, Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an igorri zigun informazioaren arabera.

Kezka areagotu egin da, ikusi baitugu 2009rako aurrekontuen proiektuan –iragan urriaren 31n jaso genuen– 5.000 euroko kontusail bat dagoela; hau da, heldu den urterako dagoen zenbatekoa %97 baino gehiago murriztu da.

Ikusirik deialdia ez dela egin, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat, eta dirulaguntza horien deialdia berma dezan aurrekontuan beharrezkoa den diru kopurua jarrita, sortzen dituzten arazoak irauten duten bitartean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko, Legebiltzarraren Kultura eta Turismo Batzordean eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Europako Kultura Ibilbidea bereizgarri bat da, Europako Kontseiluak ematen diena zenbait balio biltzen dituzten bide, ibilbide eta ibiltarteei. Kultur ibilbideekin Europako Kontseiluak produktu kultural edo turistikoen merkaturatze soiletik haratago joan nahi du, eta Europako balio kulturalak babestearen aldeko apustua egin du, baita Europako

gazteen artean elkartzeko modu berriak sustatzearen, gutxi estimatutako ondareen balioa areagotzearen eta kooperazio programak garatzearen aldekoa ere.

Horretarako, 1997an Kultura Ibilbideen Europako Institutua sortu zuen. Institutuaren helburua da jada hautaturiko ibilbideen sustatzaileei laguntzea, proiektu berriak aurkezten dituztenei beren ekimenak abian jartzen laguntzea eta programa honi buruzko informazioa zabaltzea.

Zerrenda osatzen dute Europako 36 kultura ibilbideak; hor dira esaterako Mozarten Ibilbidea (1990), Zelten Ibilbidea (1990), Bikingoen Ibilbidea (1992), Feniziarren Ibilbideak (1994), Humanismoarena (1994), Errege Bidea (2005) eta Olibadiaren Ibilbideak (2005), besteak beste.

Donejakue Bidea izan zen aipamen hori lortu zuen lehena, 1987an, eta haren ondotik lortu zuten Al-Andaluseko Ondareak (1997) eta Gaztelaniaren eta Mediterraneoan barrena izan zuen zabalkundea: sefardien Bideak (2002) . 2007an On Kixoterren ibilbidea gehitu zitzairen, Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldien ondotik. Gure herrialdean sorturiko azken ekimena Bide Zeltiberiarra izan da.

Hau Segedako Ikerketa Zeltiberiarren Zentroak eginiko proposamena da, eta Zeltiberia izenez ezagutzen den lurralde historikoan ikerketak egiten dabilzan arkeologoen babesa du.

Zeltiberia Antzinaroko lurralde historiko bat da, iberiar penintsularen barnealdean kokatzen dena; hain zuzen, sistema iberiar zentrolean eta haren ertz menditsuan, Ebro, Duero eta Tajo ibaien arroak hartuz. 61.643 km²-ko azalera du, Aragoiko, Gaztela-Mantxako, Gaztela eta Leónko eta Errioxako erkidego autonomoen eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean banatzen direnak.

Ekimenarekin batera doan txostenean, aztarnategien katalogo bat aurkezten da, eta, horien artean, 106. eta 107. orrialdeak Castejónko Udal Museoari buruzkoak dira; izan ere, bertako material asko El Castillo muinoko herrixka zeltiberiarrekoak eta hari lotutako nekropolikoak dira.

Erakunde honen eta Calatayudeko Udalaren arteko hitzarmenari esker, hiri horrek bere gain hartu du aipatu ibilbidearen egoitza izatea.

Bide Zeltiberiarren xedea da gaur egun ikusgarri dauden eta ondare zeltiberiarren loturiko tokien osoko ikuspegi bat eskaintzea. Toki horiek aztarnategi arkeologikoak, interpretazio zentroak eta museoak dira, baita ondare horrekin lotuta egiten diren ekitaldiak eta ekimenak ere, hala nola bide historikoetan barrena egiten diren ibilbideak, antzeppen historikoak eta irakaskuntza jarduerak eta jarduera didaktikoak. Eskaintza hori egonkorra da tokien kasuan eta urteko egutegiaren arabera ekitaldien kasuan, eta urtero eguneratuko da.

2008ko apirilean, ibilbideko tokiak jasotzen zituen lehenengo txostena bidali zen zenbait erakundetara, horien babesa eskatuz, Kultura Ibilbideen Europako Institutuak Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide gisa onar zezan. Erantzunen artean jaso zen, besteak beste, Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioarena.

Bere garaian Nafarroako Gobernuari gonbita egin zitzaion ekimen horrekin bat egiteko, baina orain arte Gobernuak ez du adierazi ekimen hori babesten duenik. Kontuan hartuta ekimen horren egokitasuna eta Zeltiberia historikoak Nafarroako Foru Komunitatearen gaur egungo lurraldearekiko duen gertutasuna, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1.- Nafarroako Parlamentuak, azaldutako arrazoiengatik, bere babesa agertzen dio Europako Kontseiluak Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko ekimenari.

2.- Nafarroako Parlamentuak, antzinako lurralde zeltiberiarrekin lotzen gaituzten arrazoi historiko, kultural eta auzotasunezkoak direla eta, Nafarroako Gobernua premiatzen du ekimen horrekin bat egin dezan eta harekiko babes esplizitua ager dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko batzorde antolatzailean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak hautatutako 5 batzordekide, parlamentu-talde bakoitzetik bat.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2012ko batzorde antolatzailean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak hautatutako 5 batzordekide, parlamentu-talde bakoitzetik bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak ezarri du nork osatuko duen 2012 batzorde antolatzailea. Batzorde horren helburua da Navas de Tolosako batailaren zortzigarren urteurrena eta Gaztelako koroaren guda-

rosteez Nafarroa konkistatu zuteneko bosgarren urteurrena ospatzeko jarduerak zehaztea eta koordinatzea.

Batzorde horretako kideen artean daude, besteak beste, erakundeetako karguak, Iruñeko alkatea, Saint-Palaisko alkatea, Iruñeko artzapezpikua, NUPeko, Opus Deiko unibertsitateko eta UNEDeko ordezkariak eta batzordeak landuko dituen arlo historiko, kultural eta geografikoetan itzal handia duten bost pertsona, Nafarroako Gobernuko lehendakariak aukeratuko dituenak, batzordeburua baita.

Komenigarria litzateke ospakizun horretan historiografiaren ikuspegi guztiak kontuan hartzea, baita azterketa berrienak ere. Kontuan hartuta ekitaldi horrek duen garrantzia eta beharrezkoa dela Nafarroako gizartearen osatzen dugun sentsibiltate politiko, sozial eta kultural guztiak egotea batzorde horretan, zeinak ahalik eta anitzena eta zabalena izan beharko bailuke, beharrezkoa da talde politiko guztiak batzorde horretan parte hartzea ahalbidetuko duten neurriak ezartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2012ko batzorde antolatzailean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak hautatutako 5 batzordekide, parlamentu-talde bakoitzetik bat.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

F saila:
GALDERAK

Galdera, gehiegizko untxi kopuruak eragindako egoera aztertzeke lan-mahaiari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, gehiegizko untxi kopuruak eragindako egoera aztertzeke lan-mahaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

• Osatu al duzu Nafarroako zenbait herritako gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertzeke lan-taldea? Nork osatzen du aipatu lan-taldea? Ondoriorik atera al dute arazoa kontontze aldera?

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak egoitza-postuen eskaeren itxaron zerrendei aurre egiteko dituen asmoei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak egoitza-postuen eskaeren itxaron zerrendei aurre egiteko dituen asmoei

buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Osasun Departamentuak *Mentaliza zaitetz* kanpaina abian jartzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak *Mentaliza zaitetz* kanpaina abian jartzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Osasun Departamentuak ez zuen baimenik eman *Mentaliza zaitetz* izeneko kanpaina egiteko eta zabaltzeko. Kanpaina horren helburua zen gazteak eta nerabeak informatzea eta sentsibilizatzea, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen errealitatearen eta gaixotasun horien tratamenduaren gainean.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

- Zeintzuk izan dira arrazoiak Osasun Departamentuak kanpaina hori ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko?

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2008ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera

2008rako aurrekontuetan, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

- 71400-700000-4809-411102 “Dirulaguntzak nekazaritza arloko komunikazio-ekintzengatik”
- 71400-700000-4819-411100 “Dirulaguntzak nekazaritzaren arloko lanbide-erakundeentzat”
- 71430-700001-6030-468100 “Sare meteorologikoaren eta hidrologoaren instalazioak eta hobekuntzak”
- 71430-700001-7400-468100 “Sozietate publikoentzako transferentziak ikerketa proiektuetarako”
- 71210-710000-4700-412100 “Kalte-ordainak landareak erazteagatik”
- 71210-710000-4700-412102 “Nekazariak eta abeltzainak izenpetzekoak diren erretiro-planetaryako laguntzak”
- 71210-710000-4700-412102 “Uholde handiek kaltetutako azpiegitura pribatuentzako eta eragindako errenta galerentzako laguntzak”
- 71230-710001-2276-414200 “Nekazaritzarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA-FEADER”
- 71230-710001-4700-414200 “Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER”
- 71230-710001-4700-414202 “Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER”
- 71230-710001-4700-414205 “Aholkularitza zerbitzuak PDR FEADER”
- 71230-710001-4700-414206 “Fruitu lehorren ekoizpenerako laguntzak”
- 71230-710001-4700-414207 “Behi ume-hazleko ekoizleentzako laguntza osagarriak”
- 71230-710001-4700-414208 “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak PDR FEADER”
- 71220-710002-2279-412300 “Industriarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea”
- 71220-710002-6031-412300 “Siloen sarearen egokitzea”
- 71320-711000-7700-412203 “Gorpuak biltzeko edukiontzak erosteko dirulaguntza”
- 71310-711001-4700-412204 “Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatik dirulaguntza”
- 71310-711001-4700-412208 “Abeltzaintzako ekoizpen iraunkorretarako dirulaguntzak”
- 71310-711001-7400-412200 “Abeltzaintza sustatzen duten elkarreentzako dirulaguntzak”
- 72320-720000-7700-417100 “Ureztaketa eremu berrietarako edo daudenak hobetzeko dirulaguntzak. PDR FEADER”
- 7210-720001-6019-414300 “Lurren jabetza antolatzeko eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak. PDR FEADER”
- 7210-720001-7609-414304 “Abeltzaintzako azpiegiturarako laguntzak PDR FEADER”
- 7210-720001-7609-414305 “Titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturretan eragindako kalteak konpontzeko laguntzak”
- 7210-720001-7700-414302 “Ustategien oinarriko azalerak eratzeko laguntzak”
- 7210-720001-7700-414304 “Labore iraunkorretan izandako galerengatik kalte-ordainak”
- 72210-721000-4700-413100 “Kooperatibentzako laguntzak, auditorietarako, kontabilitatea gaurkotzeko eta txostenetarako”
- 72210-721000-4701-413100 “Nekazaritza kooperatibak berregituratzeko pizgarriak”
- 72210-721000-4701-413104 “Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko ekimenak sustatzea”
- 72210-721000-4701-413105 “Kooperatibak berregituratzea sustatzea”
- 72210-721000-7701-413102 “Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak. PDR FEADER”
- 72210-721000-7701-4131 03 “Arrantzaren Europako Funtsaren laguntza. FEP”
- 72220-721001-4819-413100 “Irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak”:
- 72230-721002-4809-412100 “Nekazaritza jarduera alde aurretik uztea. PDR FEADER”
- 72230-721002-7700-412100 “Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER”
- 72230-721002-7700-412103 “Makinariarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak”
- 72230-721002-7700-412106 “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboak”
- 72320-722001-7700-412100 “Nekazaritzako elikagaien mikroenpresen dibertsifikazioa. PDR (2007-2013) FEADER”
- 72320-722001-7701-412100 “Nekazaritzako ez diren jardueretarako dibertsifikazioa. PDR (2007-20013) FEADER”

- 72320-722001-7819-412100 “Leader Plus (2000-2006) FEOGA-O ekimena”
 - 72320-722001-7819-412102 “Leader Plus (2007-2013) FEDER ardatza”
 - 74100-740001-7609-456200 “Tokiko Agenda 21”
 - 74100-740001-7709-756203 “Hegazti-fauna babesteko jarduerak”
 - 74200-740002-4609-456300 “Toki entitateentzako kalte-ordain eta laguntzak”.
 - 74200-740002-4700-456300 “Nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriak eta konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER”
 - 74200-740002-6019-456300 “Batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako inbertsioak”
 - 74200-740002-6092-456303 “Batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planak prestatzea”
 - 74200-740002-7609-456300 “Toki entitateentzako laguntzak, biodibertsitatea zaintzeko”
 - 74200-740002-7609-456700 Basoari buruzko planaren dirulaguntzak toki entitateentzat”
 - 74200-740002-7700-456700 “Nekazaritza lurra basotzea. PDR FEADER”
 - 74200-740002-7700-456702 “Oihan industri-entzako laguntzak PDR FEADER”
 - 74200-740002-7709-456702 Basoari buruzko planaren dirulaguntzak eragile pribatuentzat. PDR FEADER”
 - 74200-740002-7800-456300 “Elkarteentzako eta partikularrentzako laguntzak, biodibertsitatea zaintzeko”
 - 74300-740003-6019-452100. “Ibaiertzak lehengoratzea eta ekosistemak babestea”
 - 74300-740003-7609-452100 “Ibaiak hobetzea eta obra hidraulikoak”
2. Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.
- 3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.
- Iruñean, 2008ko azaroaren 3an
Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren 2007ko ekitaldiko zenbait kontusailen betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera

2007rako aurrekontuetan, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan, zenbait kontusail ageri dira.

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Kontusail horien betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean. Hona kontusail horien kodeak:

– 71400-700000-4809-411102 “Dirulaguntzak nekazaritza arloko komunikazio-ekintzengatik”

– 71400-700000-4819-411100 “Dirulaguntzak nekazaritzaren arloko lanbide-erakundeentzat”

– 71400-700000-4819-411102 “Irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak”:

– 71430-700001-6030-468100 “Sare meteorologikoaren eta hidrlogikoaren instalazioak eta hobekuntzak”

– 71430-700001-7400-468100 “Sozietate publikoentzako transferentziak ikerketa proiektuetarako”

– 71210-710000-4700-412102 “Nekazariak eta abeltzainak izenpetzekoak diren erretiro-planetaryako laguntzak”

– 71210-710000-4700-412107 “Uholde handiek kaltetutako azpiegitura pribatuentzako eta eragindako errenta galerentzako laguntzak”

– 71230-710001-2276-414200 “Nekazaritzarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA-FEADER”

– 71230-710001-4700-414200 “Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER”

– 71230-710001-4700-414202 “Konpentsatzeko kalte-ordainak PDR FEADER”

– 71220-710002-2279-412300 “Industriarako laguntzen kontrola. Erakunde ordaintzailea FEAGA FADER”

– 71220-710002-6031-412300 “Siloen sarearen egokitzea”

– 71320-711000-7700-412203 “Gorpuak biltzeko edukiontziak erosteko dirulaguntza”

– 71320-711000-4700-412204 “Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatik dirulaguntza”

– 71310-711001-4.700-412207 “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak PDR FEADER”

– 71310-711001-4819-412200 “Abeltzaintza sustatzen duten elkarreentzako dirulaguntzak”

– 72130-720000-7700-417100 “Ureztaketa eremu berrietarako edo daudenak hobetzeko dirulaguntzak. PDR FEADER”

– 72120-720001-6019-414300 “Lurren jabetza antolatzeke eta lurzati berrantolamendua egiteke obrak. PDR FEADER”

– 72120-720001-7609-414304 “Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak”

– 72120-720001-7609-414305 “Titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturretan eragindako kalteak konpontzeko laguntzak”

– 72120-720001-7700-414304 “Labore iraunkorretan izandako galerengatik kalte-ordainak”

– 72210-721000-4700-413100 “Kooperatibentzako laguntzak, auditorietarako, kontabilitatea gaurkotzeko eta txostenetarako”

– 72210-721000-4701-4130100 “Nekazaritza-kooperatibak berregituratzeko pizgarriak”

– 72210-721000-4701-413104 “Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko ekimenak sustatzea”

– 72210-721000-4701-413105 “Kooperatibak berregituratzeko ekimenak sustatzea”

72210-721000-7701-413102 “Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak. PDR FEADER”

– 72210-721000-7701-41310303 “Arrantzaren Europako Funtzaren laguntza. FEP”

– 72230-721002-4809-412100 “Nekazaritza jarduera alde aurretik uztea. PDR FEADER”

– 72230-721002-7700-412100 “Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER”

72230-721002-7700-412103 “Makinariarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak”

– 72230-721002-7700-412104 “Kooperatibak berregituratzea. Mekanizazio zerbitzu integratuak ezartzeko laguntzak”

2. Kontusail horien amaierako betetze-aurreikuspena, egozteke daudenak zehaztuz.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta kontzeptuen zehaztapena.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Silencio roto filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Silencio roto filmaren interpretazio zentroan duen parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Artzibarko Zaraguetan bada Silencio roto filmaren interpretazio zentro bat.

Horrekin lotuta, foru parlamentari honek ondo-koa jakin nahi du:

1.- Zer parte-hartze izan du eta du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak kultur ekipamendu horretan?

2.- Asteburuetan ekipamendu hori zaintzen duten langileak, departamentuak kontratatutakoak al dira?

Iruñean, 2008ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzko galdera.

• Garapenerako lankidetzaren arloaren jarraipena eta kontrola egiteko laguntza teknikorako zenbat kontratu bete dira eta noiz?

• Ba al duzu asmorik laguntza tekniko hori luzatzeko?

• Ba al duzu asmorik arlo horretako plantilla indartzeko, espedienteen jarraipena eta kontrola egiteko kanpoko laguntzaren beharrik ez izateko?

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinaren egoerari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Corellako Haur Hezkuntzako ikastetxea hartzen duen eraikinaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun diezaion.

Zenbait protesta-ekintzen berri izan dugu 1950eko hamarkadan eraikitako eta Corellako haur eskola hartzen duen eraikina dela-eta. Protestaren arrazoiak ondokoak dira:

Toki falta: Ez dago eta ezin da egon gela bat orientatzailearentzat edo logopedarentzat, beharrezkoak izan arren ikastetxe guztietan haur hezkuntzako haurren garapen intelektual, emozional eta sozialerako. HJAko klaseetan ere ez dago bikoizketak egiteko aukerarik, eta ondorioz eremu bera konpartitu behar izaten dute ikasleek, oso txikia izan arren. Halaber, ez dago psikomotrizitate gelarik, ez eta informatika gelarik, ikus-entzunezko edo liburutegirik ere.

Ikasgelak erabat hondaturik daude: Zoruak, sabaiak, arbelak, burdinazko berogailuak, burdinazko leihoak, inolako babesik gabe eta irekitzeko aukerarik gabe, haurren mailan baitaude.

Lau urteko haurrak eskailera batzuetatik sartzen dira, eta hori ez da sarbide egokia halako haurrentzat.

Haur hezkuntzako ikastetxe horretan bi komun bakarrik daude eraikin osoan ikasle guztientzat (240), eta komun horietan ez dago bi konketa, hiru komunontzi eta bost pixatoki besterik, eta 90-100 haurrek txandaka erabili behar dituzte. Legearen arabera, haur hezkuntzako ikastetxeetan komun bat egonen da ikasgela bakoitzeko, eta bertan konketa bat eta komunontzi bat izanen dira.

Ez dago arazo fisikoak dituzten ikasleentzat egokitutako komunik. (Errege Dekretuaren 6. artikulua).

Ikastetxe honetan ez dago jantokirik. Haurrak beste eraikin batera joan behar izaten dute (400 metro ingurura) bazkaltzeko, eta hori arriskutsua da haientzat, ibilgailuen trafikoa duten bi kale gurutzatu behar baitituzte bertara iristeko. Halaber, eguneroko eguraldiaren mendean daude (euria, haizea, elurra eta abar).

Eginiko salaketak ikusirik, honako galderari erantzutea nahi dugu:

Ba al du departamentuak ikastetxe horren egoerari buruzko txosten teknikorik?

Hezkuntza Departamentuak uste al du Corellako ikastetxe horrek betetzen dituela bizigarritasun baldintza egokiak?

Ikastetxearen hondatze-egoera dela eta, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik ikastetxe berria 2011 baino lehen eraikitzeko?

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako zahar-etxeetako toki itunduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zahar-etxeetako toki itunduei buruzko galdera

- Zenbat toki daude itunduta Nafarroan? Horietatik zenbat daude kudeaketa eta jabetza pribatuko egoitzetan? Zenbat kudeaketa pribatuko baina jabetza publikoko egoitzetan? Eta zenbat kudeaketa eta jabetza publikoko egoitzetan?

- Zenbat da itun horien kostua, galdera honetan zehazturiko atal bakoitzean?

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 7an onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 7an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 7an onetsitako erabakiak

Lehenengoa. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako herritar orok bermaturik izan dezan, hala Nafarroako foru administrazioaren webgunean nola atari elektronikoetan, nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahalko duela administrazioarekiko harremanetan.

Bigarrena. 1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarrizko osasun laguntzaren arloan ondokoak egin ditzan:

a) Osasun etxeetan eta anbulatorioetan behar adina inbertsio, gaixoentzako zerbitzua duintze aldera.

b) Egin beharreko berregituratzea, landa eremuetako larrialdi zerbitzuak ez murrizteko.

c) Kronograma bat, oinarrizko osasun laguntzako antolamendua hobetzeko proiektua hedatzeko; kronograma horretan jasoko da zer osasun etxetara hedatuko den urte bakoitzean, osasun etxe guztietara heldu arte, bai eta urte bakoitzeko kontusailak ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, azpiegituretan inbertitzeaz gain, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak berrantola ditzan eta aintzat har ditzan profesionalen egindako proposamenak, ospitaleko nahiz

ospitale kanpoko larrialdiei eta oinarrizko osasun laguntzari dagokienez.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeari laguntzeko zentroei hezkuntza- nahiz prebentzio-eginkizunak itzul diezazkien, haien sorrerako espirituarekin bat, eta aurrekontuetan haiendako behar adina diru jar dezan.

4.- Nafarroako Parlamentuak premiatzen du, haurdunaldia nahita eteteari buruzko legea onetsirik, Nafarroan osasun publikoak egiaz eman ditzan haurdunaldia nahita eteteari buruzko legeak aurreikusitako kasuetan emakume nafarrei dagozkien zerbitzuak.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sistema publikoaren geriatría arloko plangintza bat egin dezan lehenbailehen, kontuan hartuta akutuen ingresoak eta egonaldi ertain eta luzeak, bai eta osasun etxeetan geriatrak jartzeko aukera ere.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala ekin diezaion, seriotasunez, zorrotasunez eta eragingarritasunez ekin ere, funtzio publikoko mahai orokorreko kideekiko elkarrizketari, 2009rako eta 2010erako akordioak lortze aldera.

Laugarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrazter dezan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren, haren erakunde autonomoen eta haren menpeko entitateen egitura administratibo, organiko eta funtzionala berrazter dezan, egitura hori egokitzeko krisi ekonomikoko egoeraren eta, horrenbestez, aurrekontua gerarazteko premiaren arabera, horixe baita egungo egoerari dagokiona.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009ko ekainaren 30a baino lehen Parlamentu honetan ekintzen plan bat aurkez dezan, aurreikusitako ekintzak zehaztuko dituen. Planean departamentu bakoitzak eta

administrazioaren menpeko erakunde autonomo bakoitzak hartu beharreko neurriak jasoko dira.

3. Nafarroako Parlamentuak gonbita egiten die Nafarroako Foru Komunitateko udalei, eta bereziki populazio handiena dutenei, antzeko neurriak gara ditzaten, udalen esparruan ere krisiaren aurrean eduki beharreko jokabidearen eredia emateko.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du iragarki-ohol elektronikoa sor dezan, eta hura foru gobernuko web atarian txerta dezan, halako moduz non 2009. urtearen hasieran, edo beranduenez 6 hileko epean, abian egon dadin.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familien, menpekotasuna duten pertsonen eta ekintzaile berrien, gazteen eta jarduera berrien egoera hobetzeko neurri fiskal batzuk aztertu eta abian jar ditzan.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abalen linea bat sor dezan, "Nafarroa abala" izenaren pean, likideziako zailtasunak dituzten foru erkidegoko enpresei laguntza emateko.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Inbertsioetarako Erreserba Berezia enpresa txiki eta ertainentzat eraginkortasunez zabaltzeko, hura eskuratzeko baldintzak malgutzuz.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako finantza- eta banku-entitateekin lankidetzak hitzarmen bat sina dezan, abalen edo beste edozein formularen bitartez etxebizitzaren % 20ra bitarteko hipoteka-bermea bermatzeko BOE bat erosteko baldintzak bete bai baina banku-entitateetan hipotekadun mailegua ezin lor dezaketan pertsonen, horixe baita behar dutena.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako deialdietan, lanpostuen % 50 gordetzeko ingelesaren hizkuntza eskakizuna duten pertsonentzat. Oposizioaren zati bat kasuko hizkuntza modernoan egin behar da. Aukera hori behar den bezala emanen da jakitera, interesdunek horren berri izan dezaten deialdia argitaratu aurretik.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009-2010 ikasturtean, ikasleekin lan egiteko ohiko metodologia gisa, ordenagailu eramangarri txikien erabileran oinarritutako programa pilotu bat abian jar dezan. Esperientzia pilotua gutxienez ere Lehen Hezkuntzako zentro publiko batean eta Bigarren

Hezkuntzako beste ikastetxe publiko batean gauzatuko da. Programa pilotu hori pixkanaka gainerako ikastetxeetara zabalduko da. Esperientzia pilotua teknologia berrien erabilera dela-eta sentsibilitate handiena duten eta ikasle zailak eskolatzen eta hezten inplikaturik dauden ikastetxeetan hasiko da, hezkuntza sistema publikoa suspertze aldera.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun etxek goiz eta arratsaldeko ordutegian zabaltzeko aukera aztertu eta proposa dezan.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ezar dezan Europako Brontzeko Zigilua (EFQM) kudeaketa-eredua.

Hamalaugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu erregulazioko espedienteen gaineko zaintza areagotu dezan, haietan arbitro lanak egin behar baititu, gehiegikeriak saihesteko, langileen eskubideak defendatzeko eta, aldi berean, sentiberatasuna izateko espediente hori benetan justifikaturik egon daitekeen enpresekin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du funtsezko parte bat har dezan enpresen eta langileen arteko negoziazioetan, akordioaren bitartez konponbideak aurkitu ahal izateko gure enpresen sarea indartzeko eta langileen eskubideei eusteko, Nafarroako sistema ekonomikoaren funtsezko zatia baitira.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitateen eta enpresen arteko harremanak bultzatzeko ahaleginak handitu ditzan, produkzio-sistema hobetzeko funtsezkotzat jotzen diren arloetarako garapena eta transferentzia teknologikoa sustatuz.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako arartekoari eskatzea txosten bat egin eta aurkez dezan, eta bertan lege, legegintza edo erregelamenduei dagokienez behar diren aldaketak proposa ditzan, bere esku-menak guztiz garatu eta zabaltzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek adingabeen babeserako egiten dituzten politikak hobeki kontrolatze aldera.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Nafarroako Adingabearen Kontseilua" sor dezan, Nafarroan adingabeekin lan egiten duten entitate eta elkarteek parte hartzeko foro gisa. Kontseiluaren helburuak honakoak izanen dira: haurrak babestearen arloko proposame-

nak behatu, aztertu eta egitea, objektibotasuna, profesionaltasuna eta independentzia abiapuntu gisa hartuta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egun foru erkidegoan adingabeak babestearen eta onbideratzearen arloan dauden baliabideak zabaltzeko eta hobetzeko, koordinazio-tresnak optimizatzeko eta arlo honetan foru erkidegoan garatzen diren politikak ebaluatzeko sistemak hobetzeko.

Hamazazpigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtero gizarte etxeak edo eremu sozio-kulturalak sortu eta abian jartzeko laguntzen deialdia egin dezan. Deialdi horretan, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalen premia bereziak jasoko dira, modurik ez baitute udaletako kultur etxeei exijitzen zaizkien programak lortu ahal izateko.

2. Deialdia Kultura eta Turismo Departamentuak eta Gizarte Ongizate Departamentuak eginen dute batera, eta bertan populazioaren, haurren, gazteen, helduen eta hirugarren adinekoren beharrak jaso beharko dira, kostuak gutxitzea eta bizikidetasun harmoniatsua bideratuko duen sinergia bat lortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalen estutasun ekonomikoak ikusita, foru gobernuaren dirulaguntzen zerumuga jar dadin kostuaren bi herenetan, betiere ukituriko bi departamentuek finantzatuta; kasuko udalak, berriz, obraren beste herena ordaindu beharko du.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialdi hori 2009ko lehen hiru hilekoan abian egon dadin, hartan aurreikusitako modu egokian garatu ahal izateko.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarrizko osasun laguntzaren antolamendua berrikus dezan, baliabideak herritarren eskariei egokitzeko. Hartara, giza baliabideak nahiz baliabide materialak eta antolakuntzakoak ezarriko dira, gaixoari behar bezalako zerbitzua emate aldera, ondokoak helburu: mediku bakoitzak hamar minutu izatea gaixo bakoitzarentzat eta, helduen kasuan, eguneko 25 gaixo ikusi behar izatea gehienez ere.

Hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide ekonomiko jar dezan, gainontzeko administrazio publikoekin batera, garapenerako laguntza ofizialak Nafarroako errenta gordinaren % 0,7 egin dezan 2010ean.

Hogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Gobernu Zentrala premiatzen du lehenbailehen

eta behin betikoz eraiki dezan Nafarroako espetxe berria, eta eraiki eta berehala espetxeen gaineko transferentzia egin dadin, Foru Hobetzean aurreikusitakoarekin bat.

Hogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte eragileekin batera prestatu, taxutu eta gara dezan bestelako industria politika bat, enpresen deslokalizazio arisku errealarari aurre egiteko eta Nafarroako sektore estrategiko berriak ezartzen laguntzeko.

Hogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Estatuko aurrekontu orokorren eztabaidan Nafarroako inbertsioak handitzea. Horretarako, Nafarroako parlamentu-taldeek lan eginen dugu arlo horretan, helburu hori lortze aldera.

Hogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasunetan lehena izan dadin langabeziaren aurkako borroka, eta apustu egin dezan garapen-eredu indartsuago eta iraunkorrago baten alde, prestakuntzan, berrikuntzan, gizarte-politika sendoetan eta langileen babesean oinarritua.

Hogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du negutegi-efektuko gasak isurtzeari buruz Kioton hartutako konpromisoak foru erkidegoan betetzea lehentasun gisa ezar dezan.

Hogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak ETArri exijitzen dio armak eman ditzan eta berehala desegin dadin.

Hogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du profesionalen esku jar ditzan bere lana egiteko baliabideak eta bermeak, halako moduz non haurdunaldia nahita eten ahalko baita Foru Komunitatean, Parlamentu honek onetsitako foru legean jasotzen denari jarraikiz.

Hogeita zazpigarrena. 1. Parlamentu honek beste behin nabarmendu behar du bere gaitzespena halako gertakarien aurrean. Behin eta berriz errepikatu behar dugu haiek gaitzetsi eta errefusatzeko ditugula, eta bakean eta askatasunean bizi nahi duen gizarte osoaren mespretxua adierazten dugu.

2. Parlamentuak gizarte honen aurkako eraso gaitzesten du; errefusatzeko banda terrorista batek herriaren borondatea beretzat hartzea, hain zuzen ere inork eman ez dion ordezkari. Parlamentuak indarkeriaren erabilera errefusatzeko du, eta borondate irmoa adierazten du hitza izan dadin auzi politikoak eztabaidatzeko bidea.

3.- Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten die terrorismoaren biktimei bere babesa, ulermena eta elkartasuna, eta aitortzen die demokraziak horiekin duen betiereko zorra, indarkeria zaleen aurrean askatasunaren eta justiziaren aldeko etengabeko borrokaren ezaugarri baitira.

4. Parlamentu honek, banda terroristaren azken komunikatua eta gero, bere aldekotasuna eta solidaritatea adierazi nahi dio Foruzaingoari, eta, era berean, adorea eman nahi dio Nafarroako gizartearen aldeko lanean jarrai dezan. Lan horretan ari dira, halaber, Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, eta horregatik dira terroristen zentzugabekeriaren jomuga.

Hogeita zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009-2001 aldirako energia plan bat egin dezan, Nafarroako enpresa txiki eta ertainei, mikroenpresei eta langile autonomoei babesa emateko, eta plan hori Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan, onespenera eman diezaion.

Hogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nazioko Gobernua premiatzen du lehenbailehen sina dezan Nafarroako Foru Komunitatearen lankidetzaren esanguratsua eta egiazkoa ahalbidetuko duen ituna, Zaragoza, Tuter eta Iruña arteko Nafarroako abiadura handiko korridorea eraikitzeko eta finantzatzeko eta hura euskal Y-arekin lotzeko. Hala, Nafarroak horiek eraikitzeko egiten dituen ordainketak urtero Estatuari egiten dion ekarpenetik kenduko dira, Itun Ekonomikoa aplikatzean eta garatzean. Horren guztiaren xedea izanen da Zaragoza, Tuter eta Iruña arteko Nafarroako abiadura handiko korridorea ahal bezain laster egitea.

Hogeita hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako zentro teknologikoen garapena aho batez lagun dezan eta Estatuko aurrekontu orokorren bitartez Espainiako Gobernuaren laguntza ekonomikoak lor ditzan.

Hogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zentro teknologiko publikoek indarra hartzen ari diren ekoizpen sistemak eta sistema berritzaileak bultzatzen, eta ahaleginik handiena egin dezaten Nafarroako enpresei laguntzeko, Nafarroan dauden unibertsitateekin batera, enpresa horien lehiakortasuna handitze aldera.

Hogeita hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez langabezian dauden pertsonen laguntzeko plan berezia prestatzeko. Plan horretan enpleguaren arloko neurri zehatzak eta sektore berrietarako prestakuntza neurriak jasoko dira, eta laguntza ekonomikoak emanen zaizkie familia-zama bereziak dituzten langabetuei. Prestakuntza indarra hartzen ari diren sektoreei eta aukeradun sektoreei bideratuta egonen da, eta langabetuei orientabideak emanen zaizkie, besteak beste.

Hogeita hamahirugarrena. Proiektu publiko eta pribatuaren tramitazioarako eta onespenerako, negozio berrien ekimenak sustatzeko eta enpresak sortzeko epeak eta zama administratiboa nabarmen gutxitu nahi baitira, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere lau hileko epean ekintza-estrategia eta -plan bat prestatzeko, izapide administratiboa erraztu, gutxitu eta deuseztatzeko, betiere berme eta kontrol publikoen sistema gaituz.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	